



PRENTSA OHARRA 2022.08.12

Bite Basque Beat jaialdiaren bigarren edizioan izango dira Skakeitan, Izaro eta Bulego

- **Finlandiako musika jaialdi euskalduna abuztuaren 30etik irailaren 3ra bitarte egingo da Tanperen eta Helsinkin**
- **Etxepare Euskal Institutuak eta Basking Food & Culture elkarteak sustatzen duten jaialdiak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Musika Bulegoaren laguntza du**

Bueltan da Bite Basque Beat euskal musika jaialdia Finlandiara, Skakeitan, Izaro eta Bulegoren kontzertuekin. Abuztuaren 30etik irailaren 3ra egingo da, bi berritasun nagusirekin. Batetik, bi hiritan antolatuko da, Tanperen eta Helsinkin. Bestetik, kontzertuez gain, aurten lehenengoz kaleko dantzari eta musikariak ere joango dira, kalejirak, musika zein dantza ikastaroak eta erromeriak eskaintzeko. Etxepare Euskal Institutuak eta Basking Food & Culture elkarteak sustatzen duten jaialdiak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Musika Bulegoaren laguntza jaso du euskal sortzaile eta artisten nazioarteko presentzia sustatzeko.

Lehenengo edizioan Gatibu, Zetak eta Olatz Salvadorrek hartu zuten parte, eta oraingoan Izaro, Skakeitan eta Bulego taldeek bidaiatuko Finlandiara. Hala, Bite Basque Beat abuztuaren 30ean hasiko da. Eskema bera jarraituko da Tanperen eta Helsinkin. Hiri bakoitzean bi eguneko egitaraua dago aurreikusita. Lehenengo egunean ikastaroak eta erromeriak antolatuko dira eta bigarrean kontzertuak. Zuzeneko emanaldi horiek abuztuaren 31n Tanpereko G Live Lab aretoan eta irailaren 2an Helsinkiko Heidi's aretoan eskainiko dira.

Izan ere, Tanpere hirian ez ezik —abuztuaren 30 eta 31n—, aurten Helsinkin ere antolatuko da Bite Basque Beat, irailaren 1ean eta 2an. Eta hori gutxi balitz, Antti Koivula artista finlandiarrak ere kontzertua eskainiko du Helsinkin, euskal taldeekin

batera. Antti ospe handiko artista finlandiarra da, suomiz kantatzen duena. Berarekin hitz egiteko aukera izango dute euskal artistek, hizkuntza txiki baten kantatzearen garrantziaz, zergatiaz eta mugez, besteak beste, hilaren 2ko kontzertuen aurretik egingo den mahai inguruan.

Finlandiako lehenengo musika jaialdi euskaldun honek Tamperrada euskal pintxo txapelketa du jatorrian. 13 urtez egin da, eta urtero 62 taberna eta jatetxe parte hartzaileekin antolatzen du jaialdi hori Mikka Reinikka euskara eta euskal kulturaren zale amorratuak. Euskal gastronomiak Finlandian asko erakartzen duela ikusita, iaz jauzi bat eman eta pintxo lehiaketarekiko paraleloa izango zen musika jaialdia antolatzea erabaki zen. Aurtengo edizioan, euskal musikaren inguruko tailerrak eta erromeriak ere antolatu dira Finlandiako euskal komunitatearentzat.

Izaro, Bulego eta Skakeitan

Izaro Andres Donostiako belodromoan betetzetik dator. Maiatzaren 7an Anoetako belodromoan egin zuen 'Limonas de oro' (2022) disko berriaren aurkezpen kontzertua eta bertan kolaboratzaile izan dituen abeslariak izan zituen alboan. Denera 6.000 ikusle bildu zituen, emakumezko bakarlari batek Euskal Herrian bildu duen ikusle kopuru handiena. 2014an hasi zen tabernetan abesten, eta geroztik argitaratu ditu, 'Om' (2016), 'Eason' (2018) eta 'Limonas en invierno' (2020).

Bulego pop taldea 2019ko urtarrilean jaio zen diziplina anitzeko proiektu bezala. Taldekideak dira Tomas Lizarazu (ahotsa eta gitarra), Xabi Arrieta (bateria), Jontxu Ape (baxua), Ruben Lizarralde (gitarra) eta Itziar Beitia (teklatuak). Hiru lan plazaratu dituzte orain arte: 'Bulego' (2020), 'Ilun dagoen arren' (2020) eta 'Erdian oraina' (2021). Pop dantzagarria eta energia positiboz betea da boskoteak eskaintzen duena. Dagoeneko arrakasta izugarria lortu du taldeak, top zerrendetan kokatuta.

Skakeitan, 14 urteko ibilbidearen ondoren aurten agur esango duen taldea da. 2008an sortua, Pello Armendariz (ahotsa), Borja Anton (gitarra), Asier Iriondo (baxua eta koroak), Olatz Salvador (teklatuak eta koroak), Julen Idigoras (bateria), Aitor Valcarlos

(tronboia), Gorka Valcarlos (tronpeta) eta Ander Zabala (tronboia eta koroak) dira taldekideak. Plazaratutako azken lanen artean daude 'Galera' (2016), 'Galera beats' (2017), 'Nola galdu denbora' (2019) eta 'Eman ez genuen kontzertua' (2021).

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus